



Euskal Herriko
Trikitixa Elkarte

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.eus

2018. URTEA BUKATZEKO EZ DA HITZORDURIK FALTA ELKARTEAREN ESKUTIK

DURANGOKO AZOKA

Aurreko urteetan bezala, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Durangoko azokaren 53. Edizioan izango da, bere produktu guztiak eskainiz. Gogoratu, bazkide izateagatik produktu hauetan %15-eko deskontua izango duzuela.

HAZIAK II MAKETA LEHIAKETA

Aurten ere Durangoko azokaren barruan, Haziak II maketa lehiaketako lana aurkeztuko da. Aurkezpena Ahotsenean izango da abenduaren 6an, 17:40etatik 18:10etara. Ondorengo 4 taldeak izango dira: Leire Etxezarreta, Eider Garro eta Maider Azkarraga-Urizar; LIZAR taldea; Amaia Etcheverry eta Miren Iralour-Etcheverry eta Oihan Arizala eta Irati Ibinaga.

ELEUTERIO TAPIA BIOGRAFIA LIBURUA

Eleuterio Tapiak bete-betean bizi izan zuen mendiko erromerien garaia, baina irratiak eta txapelketak etorri eta soinu txikia kultura molde modernoetan sartzen hasi zenean, egoera berrira egokitzen jakin zuen eta, ez hori bakarrik, zenbait arlotan aitzindari izaten asmatu zuen, irakas-kuntzan esate baterako, bera izan baitzen Elgetaren ondotik ikasleei erakusten hasi zena, etxean jendea hartuz lehenik eta Usubilen lokala zabalduz ondoren.



Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Soinuaren Liburutegiaren barruan hamalagarren alea kaleratu du: Eleuterio Tapiak. Prentsurrekoa abenduaren 1ean eguerdiko 12:00etan izango da Asteasuko udaletxean. Aurretik soinujoleen kalejira izango da eta prentsurrekoaren ondoren Asteasuko Udalak eskainitako lunch-a.


PAPERETIK SOINURA 2 PARTITURA LIBURUA

Soinu txikiarekin jotzeko piezak bildu dira partitura liburu honetan. 1990ko hamarkadatik hasi eta 2018 artean argitaratu diren hainbat kanturen lagin xume bat da soinu txikiaren ikasle zein irakasleei eskainia.

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak zuzendaritzan partaide direnek 2018an zehar sare sozialetan galdetuta parte hartutako proposamenen artean, 12 kanturen aukeraketa egin da, ahalik eta erritmo, talde edo doinu aniztasun handiena ekarriz.

URTE BUKAERAKO AFARIA

Aurten abenduaren 29an, larunbata, Aiako Aris-terrazu Jatetxean antolatu du EHTEk urte bukaerako bazkaria. Izena emateko trikitixa@trikitixa.eus helbidera idatzi edota **943 83 28 28** telefonora deitu (goizez soilik) abenduaren 17a baino lehen.



ELKARRIZKETA: ENERITZ AULESTIA

Nor da Eneritz Aulestia?

Saltsa guztietan sartzen den 23 urteko zarauztarra, komunikatzailea ofizioz eta musika zalea.

Zer zaletasun dituzu?

Nire zaletasun nagusia musika da. Kantuan esnatzen naiz eta kantuan lotaritzen naiz. Egunean hainbat orduz egoten naiz musika entzuten eta abesten. Ikus-entzunezkoen zalea ere banaiz.



Nolatan erakarri zintuen panderoak?

Trikitixa ikasten hasi nintzen. Umetatik panderoa eskuan ibiltzen nuen Zarauzko kalejiratan baina trikitixa ikasi nahi nuen. Trikitixa ikasten ari nintzela txapelketan panderoarekin ateratzeko aukera suertatu zitzaidan eta pixkanaka trikitixa alde batera utzi eta panderoa bihurtu zen nire instrumentua. Zorixarrez trikitixa jada gutxi ateratzen dut bere kaxatik.

Askorentzat ahots ezaguna da gaur egun zurea. Plazetako oholtza gaineko mikrofonoen atzean egoteaz gain, estudioko mikroetatik iristen baitzaigu zure ahotsa... Zein mikrofono duzu gogokoan?

Edozein mikrofono dut gogoko. Umetan ur botila edota urrutiko agintea erabiltzen nuen mikrofonotzat eta oraindik ere, batzuetan, horiek ibiltzen naiz etxean. Irratirako edota kanturako erabiltzen ditudan mikrofonoen artean ezingo nuke aukeratu. Lanean nire burua askoz ere gehiago neurtzen dut, ez naiz guztiz Eneritz. Oholtza baten gainean, ordea, ez diot inolako mugarik jartzen nire buruari.

Aurten, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak eta Tolosaldeko Atariak hitzarmen bat sinatu dute HAUSPO ARTEAN irratsaioa elkarlanean egiteko. Ander Malbadi eta zure gidaritzapean larunbat eguerdietan entzun daiteke saioa. Lehenengo bi atalak dagoeneko sarean daude ondoko helbidean: <https://ataria.eus/bereziak/hauspo-artean>. Zer eman dizu saioak?

'Hauspo artean' saioak nire ofizioa eta afizioa elkartzea lortu du. Gainera, ezagutzen dudak gaiaren inguruan komunikatzen naizenez guztiz eroso sentitzen naiz.

Trikiti munduari eskainitako saio gutxi dago...

Gizarteak trikitia gauza zahartzat hartzen duela iruditzen zait askotan; erronomia, kontzertu eta kalejiretatik at zaila ikusten dugu trikitia telebistan edota irratiaren ikustea eta entzutea. Eta ez dut ulertzen...

Trikitiak eta trikitizaleek asko dute esateko eta erakusteko. Gainera, trikitiak badu publiko zabal bat. Kontua hedabideetan trikitiari ematen zaion trataera dela deritzot; horretan asmatu behar da. Telebistan aurtengo trikiti saio edo erronomia bat ikusten badugu, zergatik iruditzen zaigu duela 15 urtekoa dela?

Julen Alonsoren diskoan parte hartu duzu. Nolako esperientzia izan da?

Julenekin lan egitea beti da erraza eta asko disfrutatzen dut. Urte asko daramatzagu elkarrekin eta Julenek egiten duen lana izugarria da. Julenen kantuetan parte hartzea berezia da, lotura oso estua dugulako.

Zarautzek zer du falta?

Zalantzarik gabe, Zarautzek antzoki edota kultur etxe bat falta du. Nire herriak eskaintza kultural askoz ere zabalagoa izan beharko lukeela uste dut. Udan gauza gehiago egoten da, baina behin negua iristean triste geratzen da herria. Zarautzarrengatik eta zarautzarrentzat eginiko antzoki bat eta programa kultural bat behar dugu.

Gustura ikasiko zenukeen instrumentu bat?

Pare bat aukeratzekotan, gitarra eta pianoa aukeratuko nituzke. Egunen batean, gitarra edo pianoa jo eta nik sortutako kantaren bat abestu nahiko nuke.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Inguruak barrez ikusteak egiten nau zoriontsu. Barrea ezin eutsi egoteak.

Amets bat?

Oso ameslaria naiz. Musikari dagokionez, instrumentu bat, nire ahotsa eta nire abesti batekin, behin bada ere, jendearengana iristea da. Gustatzen zait amestea, azkar itzultzen naiz oinak lurrean jartzera baina nahiko 'pelikulera' naiz. Beste hainbat urtez, amesten jarraitzeko gogoia edukitzea espero dut.

◆ NAFARROAKO V. TRIKITI JAIALDIA

Urtarrilaren 26an izango da Nafarroako Trikiti Jaialdiaren V. edizioa, arratsaldeko 17:30etan Burlatako kultur etxean. Honako talde hauek izango dira jaialdiko protagonista:

1. Xabi Aburruzaga, Koldo Uriarte eta Aitor Uribarri
2. Loren Nuñez eta Jesus Velasco
3. Roberto eta Miren Etxebarria

4. Leturia, Motriku eta Imanol
5. Asier Gozategi, Iñigo Goikoetxea eta Julen Alonso
6. Koldo Iparragirre eta Iñaki Larrañaga
7. Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña

Jaialdiko (12€) eta jaialdiaren ondoren izanen den afariko (20€) txartelak **Burlatako kultur etxearen web orrian erosi daitezke urtarrilaren 2tik aurrera.**

1979-1991 EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA TXAPELKETA NAGUSIAK

lada kalean da 7 txapelketa jasotzen dituen 13 diskoko bilduma, 58 trikitilari bikoteren piezak bilduz. IZ argitaletxeak emanak bazituen ere, orain Elkarrek eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak berrargitaratu dituzte pieza hauek. Bikote bakoitzaren lau pieza daude: trikitia, porrusalda, fandangoa eta arin-arina, horiek jo behar izaten baitziren txapelketan. Iraupen luzeko grabazioak izanik, entzungarriago egiteko, trikitilariak oholtzara igotzean eta jaistean jotako kantuek ez dituzte sartu. Salbuespen bakarra da 1986ko txapelketaren grabazioa, urte horretan kalejirari ere puntuak eman baitzizkioten. Disko bilduma elkartearen web orrian eskuratu daiteke 45€-tan.




ARITZ ALUSTIZA: GAUR

Artiz Alustiza Bergararrak, Ertzak talde berriarekin diskoa kaleratuko du. 6 abesti izango ditu eta estilo aldetik nahasketa da nagusi, beti ere trikitixaren eta biolinaren arteko doinuekin jolastuz. Aritzen trikitiaz gain, Amaia Aranzabal biolinarekin, Oihane Vicente kantuan, Julen Arrieta bajuarekin eta Iker Lauroba gitarrekin entzun daitezke diskoan. Hauez gain zenbait gonbidatu ere izan dituzte: Maixa eta Kris, Roba Estaseko neska, Axular eta Larraitz. Diskoa abenduaren 1ean aurkeztuko da Bergaran eta Durangoko azokan abenduaren 7an ahotsenean kontzertua eskainiko dute. Bertan erosi ahal izango da diskoa 8€-tan.

JULEN ALONSO: SUTAN DANTZAN

Julen Alonso Oriotar trikitilariak bere lehen diska aurkeztuko du Durangoko azokan. 11 abestiz osatutako lan honetan bidelagun izan ditu Eneritz Aulestia ahotsean, Iker Telleria perkusioan, Ander Ederra gitarran eta Joanes Ederra bajuan. Kalejirak, baltsak, trikitixa, irlandesak... estilo ezberdinak jorratu ditu Julenek diskoan. Autoekoiztutako lana dela esan daiteke, Julenek berak egin bait ditut grabaketa eta nahasketa lanak bere estudioan. Durangoko azokan edota Internet bidez erosi ahal izango da 12€-tan.



ANGEL LARRAÑAGA: LANA FESTA BIHURTUZ

Anjel Larrañaga bertsolari eta panderojoleak, Joxean Agirrek idatzitako plazako bere ibilbidea borobiltzen duen liburua eta diskoa argitaratu ditu. Liburuan, Anjel Larrañagaren bizipenez gain, Anjelen ibilbidea oso ondo ezagutzen duten hainbat pertsonen ekarpenak biltzen dira: Andoni Egaña, Anjel Valdes, Agurtzane Elustondo, Tomas Soraluze "Epelde" eta Xabier Alberdi "Zabale". Liburuaren bigarren partean, bere disko guztietan jaso dituen kanten letrak daude. Liburuarekin batera disko berri bat argitaratu du. Iker Allur EinGO taldeko trikitilaria arduratu da doinuen moldaketa eta sorkuntza lanez. Diskoan Xabier Zabale trikitiarekin, Martin Laka dultzainarekin, Iker Lauzirika perkusioekin, Iker Allur trikitiarekin, Aitor Furundarena doinuen sorkuntzan eta Oier Ponce korauekin eginez entzun daitezke. 22€-tan eskuratu daiteke ohiko saltokietan eta Lankuren web orrian. Azaroaren 25ean Aristerrazun aurkeztuko dute.

MCONAK: GURE NAUFRAGIOAK

Urte beteko geldialdiaren ondoren, taldea eraberrituta etorri da. Taldearen hirugarren diska hau Usurbilgo Higain estudioan grabatu eta nahastu dute Victor Sanchez eta Haritz Harreguyk hurrenez hurren. Hainbat musikari gazte eta esperientziadunek parte hartu dute 10 abestiz osatutako lan berri honetan: tartean Beñat Zaton trikitilari eta akordeoilari. Ohorezko gonbidatuak ere izan dituzte, tartean Iñaki Zabaleta trikitilaria. Azaroaren 14ean aurkeztu eta diskoa eskuragarri egongo da Durangoko Azokan, Elkarren, Fnac-en eta beraien kontzertuetan.



ESNE BELTZA: NI

Xabi Solanoren taldeak 10 abestiz osatutako bere zazpigarren lana kaleratuko du azaro bukatzean. "NI" izenburuarekin, norberak dituen bizipenak, sentipenak, eta barruko borrokak hartzen ditu bere baitan. Gizarte baztertzaille batean bizirauteko ahaleginak eta lorpenak lehenengo lerroan jartzeko bozgorailua izatea du helburu. 2018. urtean Atomic Studio, Aieka eta Haritz Harreguy estudioetan grabatutako lana da eta lehenengo abestitik atzeman daiteke Esne Beltza eta Marc Dasousa soinuen nahasketa. Durangoko azokan 5Gora-ren standean eta ohiko saltokietan salgai egongo da abendutik aurrera.

AGURTZANE ELUSTONDO:

"Elkartearen ikuspegitik, gure helburuekin oso bat dator berrargitalpen hau, trikitia ikertzea, babestea eta sustatzea baitira gure zereginak, etorkizuna eta transmisioa bermatzeko. Haritz Garmendia trikitilari gaztearengana jo genuen proiektuak aurrera egin zezan, eta hura arduratu da datu base bat sortu eta informazioa egiaztatu, bibliografia ikertu eta argazkiak biltzeaz. Berak idatzi du bildumari sarrera egiten dion liburuxkako testua ere. Nahiz genuen norbait gaztea, katebegi bat, aurrera egiteko. Jendea halako lan baten gosez zegoen: alde batetik, trikitia ikasten ari den jendea; eta, bestetik, garai hori bizi izan zuena. Durangoko Azokan ere, 1970eko txapelketa ikusi zuen jende asko etortzen zaigu."

Berria. 2018-10-27

ANGEL LARRAÑAGA:

"Azken urteetan lana nola borobildu galdetzen nion neure buruari. Garaiak asko aldatuta daude, eta diskoak ez dira lehen bezala argitaratzen. Doinu eta letra batzuk nituen gordeta azken diskorako, eta zerbait berria sortzen nuenean beti pilatu egiten nituen. Orain arte egindako lanak merezi izan du hauxe ikusteagatik bakarrik; portatu zarete eta eskerrik asko denoi!"

Maxixatzen.eus 2018-10-26

ANDER MALBADI:

Hauspo Artean bezalako trikiti saio bat egitearen garrantzia nola baloratzen duzue?

Beti dugu joera bertsolaritzarekin konparatzekoa, eta beraien kasuan beti izan dute saioen bat telebistan edota irratian. Trikitiak, ordea, falta zuen. Trikitiari bere lekua ematen dio. Azken batean gazteei nekez gustatuko zaie trikitia entzuten ez badute. Agian euren borondatez ez dira hasiko entzuten, baina, ATARIA IRRATIA entzuten ari badira, eta Hauspo Artean irratsaioa egokitzen bada eta trikiti piezak entzuten badituzte horrek bultzatzen lezake gustatzera, eta ondoren Aristerrazura joatea. Izan ere, agian, askok ez dute Aristerrazuren berririk, beraz, nekez joango dira hara. Azken batean, presentzia hori garrantzitsua da, eta hortik aurrera norberak aukeratuko du gustatzen zaion ala ez.

Tolosaldeko Ataria. 2018-10-12

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA

Azaroaren 24an arratsaldeko 19:00etan beste urte batez Nazioarteko Trikitixa Jaialdiak hartuko du lekua Getxon. Herberhereak, Italia eta Euskal Herriko doinuez jantzitako jaialdia izango da ondorengo parte hartzaileekin: Remco Siestsema, Filippo Gambetta & Carmelo Russo, Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea eta Iñaki Plaza. Ondoren trikitia izango da Algortako Azebarri kultur elkartean. Sarrerak (8€), Algortako kultur etxean, Romo kultur etxean, Kutxabanken edota egunean bertan emanaldia hasi aurretik Areetako Andres Isasi musika eskolako txarteldegian egongo dira salgai.

ERROMERIA DENBORALDIA HASI DA ARISTERRAZUN

Urriaren 28an eman zitzaion hasiera aurtengo erromeria denboraldiari. Hemendik aurrera igandero eta festa egunetan erromeria izango da bertan arratsaldeko 18:30etatik 21:30etara.

Euskal Herriko XXVII. Trikitilari gazteen txapelketa

Abenduaren 2an, arratsaldeko 17:30etan Zaldibarko Olazar pilotalekuan izango da 6 bikotek parte hartuko duten finala.

JOSEBA TAPIA BERRIRO SOINUAREKIN

Gitarra utzi eta berriz ere soinuarekin ikusiko dugu Joseba Tapia oholtza gainean. Formatu berrian, beste 9 lagunekin batera Donostiako Vitoria Eugenia arituko da abenduaren 9an arratsaldeko 19:00etan.

